



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2018ko URRIAREN 2an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2018ko urriaren 2an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Onintza Gorostidi Murua
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen dute: Xabier Mugika Letamendia eta Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
2. Fakturak eta ordainketak.
3. Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2018 ekitaldiko hitzarmenaren onepena, hala bada.
4. 2018/2019 ikasturterako eskolaz kanpoko jardueren esleipena, hala bada.
5. Agindua, 2018ko irailaren 5koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena. Non 2018ko ekitaldirako deialdia egiten da, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obak egiteko eta irisgarritasun – planak egin eta eguneratzeko diru-laguntzaren babesean, Alkizako Udaletxean irisgarritasuna bermatzeko egingo diren lanen finantzaketarako diru-laguntza eskaera egitea, hala bada.
6. Beste batzuk.
7. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHEN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

44/2018 Alkatetza Ebazpena, irailaren 6koa, 2018ko irailaren 7tik 10era, H.T. eta I.G. jaunei, egunean bi orduko kontratua egitea, ebazten duena.

45/2018 Alkatetza Ebazpena, irailaren 25ekoa, Maderas Garmendiari 300 euroko isuna jartzea, ebazten duena.

46/2018 Alkatetza Ebazpena, irailaren 25ekoa, Maderas Garmendiari herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

BIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

MAIALEN LUJAMBIO	260,00
ANDONI EGAÑA	260,00
AITOR MENDILUZE	258,82
LAIOTZ MUSIKA TALDEA	1.996,50
FACTORY LOGISTICA	544,50
MARIA GARMENDIA	330,00
GIPUZKOAKO SAGORDOGILEEN ELKARTEA	60,00
EUSKALTEL	96,72
OSTARBI	3.605,44
EBA ERKIZIA	1.857,77
EDURNE BENGOA	186,42
MOVISTAR	85,91
MOVISTAR	77,32
MOVISTAR	33,60
ACSOL	91,61
ACSOL	1.365,38
ACSOL	75,98
ACSOL	39,63
ACSOL	61,78



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ACSOL	150,90
ACSOL	43,46
ACSOL	48,25
ACSOL	30,71
ACSOL	32,61
EDURNE BENGOA	186,42
IBERDROLA	27,07
OSTATU	500,00
OSTATU	60,10
OSTATU	398,09
OSTATU	960,00
OSTATU	150,00
ARTICAT	544,50
ANGEL MARI PEÑAGARIKANO	517,64
ZURIARRAIN	353,68
GARAJE IBARRA	380,47
ZIRKUS	660,00
SEBASTIAN LIZASO	260,00
TRANSPORTES URBIETA	163,35
CARPINTERIA ATARI	603,43
GAUZONAK	1125,23
AKETEGI	26,40
AMAIA NUÑEZ	72,60
QUISER	329,60
URAK	755,04
LYRECO	433,26
EGIMENDI	32,00
EGIMENDI	64,20
ENEKO ETXABE Y OTROS	1.566,95

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **21.763,34** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIAK AURKEZTURIKO 2018 EKITALDIKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko Alkizako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. –ren arteko 2018 urterako Lankidetzaren Hitzarmena. Hitzarmenaren helburua, TKT-K eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea izango da.

Ikusirik aipaturiko Lankidetzaren hitzarmenean, Alkizako Udalak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari emango dion diru-laguntza zehazten dela. Alkate-Lehendakari jaunak biztanleko 4€ ematea proposatzen du.

Gaia azterturik, bertaratuek, gehiengoz, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldearen eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetzaren hitzarmena onestea, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko. Hitzarmena 2018 urterako balioa izango du.

BIGARRENA: Jon Umerez Urrezola, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 1.488,00 eurotako diru ekarpen zuzena ematea, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko (biztanleko 4€). Ordainketa, 2018ko udal aurrekontuetako 471.334.00.01 partidaren kargura egingo da.

LAUGARRENA: 1.488,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2018/2019 IKASTURTERAKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN ESLEIPENA, HALA BADA

Kontuan hartuta Alkizako udalerrian 2018-2019 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik, Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Izaskun Lazkano Gorostiaga andreari esleitzea, Alkizako herrian 2018/2019 ikasturterako Eskulanei buruzko klaseak eman ditzan. Guztira, 2.475€ ko (BEZa salbuetsita) kopuruko gastua izanik.

2018ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Izaskun Lazkano Gorostiaga andrearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2018-2019 ikasturtean zehar, 2018ko urriaren 10etik 2019ko ekainarte, Kultur Etxean eskolak emateko, ordu bakoitzeko 50€ko euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2018-2019 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 49.5 izango dira. Hori guztira, 2.475€ euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Edurne Ayuso Apaolaza Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

BOSTGARREN PUNTUA

AGINDUA, 2018KO IRAILAREN 5EKOA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUARENA. NON 2018KO EKITALDIRAKO DEIALDIA EGITEN DA, HIRI-INGURUNEAN ZEIN ERAIKINETAN IRISGARRITASUNA BERMATUKO DUTEN HOBEKUNTZA OBRAK EGITEKO ETA IRISGARRITASUN-PLANAK EGIN ETA EGUNERATZEKO DIRU-LAGUNTZAREN BABESEAN, ALKIZAKO



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALETXEAN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO EGINGO DIREN LANEN FINANTZAKETARAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko irailaren 5eko agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta etxebizitzako sailburuarena, non 2018ko ekitaldirako deialdia egiten den, Hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko diru-laguntzaren deialdia.

Ikusirik Alkizako Udalak asmoa duela aipaturiko diru-laguntza honen babesean, "Alkizako udaletxean irisgarritasuna bermatzeko egingo diren lanen" exekuzioa aurrera eramatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- "Alkizako udaletxean irisgarritasuna bermatzeko " egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2018ko irailaren 5eko aginduaren babesean, non, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta etxebizitzako sailburuak, 2018ko ekitaldirako deialdia egiten du, Hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko diru-laguntza.

BIGARRENA.- "Alkizako udaletxean irisgarritasuna bermatzeko " egin behar diren lanak" exekutatzeko onespena ematea.

SEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

ZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)